



EUSKAL ELKARGOKO TOKIKO OSASUN-KONTRATUARI BURUZKO BERRIPAPERERA

2024ko ekaina

«Tokiko Osasun-Kontratuari (TOK) buruzko berripaperaren helburuak desmartzaren aitzinamenduei buruz informatzea eta osasun arloko, arlo sozialeko eta medikuntza-sozialeko langileen 2022-2026 ekintza planaren baitako inizatibak jakinaraztea dira»



Mugikortasunaren desafioa, 2024ko ekainaren 3tik 16ra

► Mugikortasun aktiboa sustatzeko parada

Duela 11 urtetik, urte guziz, Trantsizio Ekologikorako Agentziak eta Euskal Hirigune Elkargoko Mugikortasun Sindikatuak Mugikortasunaren desafioa antolatzen dute.

Xedea: etxearen eta lantokiaren arteko bidaetan praktika berriak ezagutzea edo plantan ezartzea, eta norberaren autoa baliatu ordez, alternatibak atzematea.



Zertan datza?

Lantoki bakoitzean, erreferente bat arduratzen da informazioa hedatzeaz eta egun horren edo horien emaitza biltzeaz.

Berekin kontaktuan sar naiteke gure lantokian parte hartzeko diren moldeak ezagutzeko.

Nire lantokia desafioan sartua denez jakiteko, [egin klik hemen](#)

Nire lantokia ez bada barne, zuzendaritzako kideei aipatzen ahal diet, giza baliabideetako, kalitate-segurtasun-ingurumen zerbitzuetako lankideei, edo Mugikortasun Planaren erreferenteari, kasuan kasu. Nehor ez bada erreferentea, nire burua proposa dezaket ardura horretarako.



[Izen ematea – Jarraibideak hemen](#)



Praktika onak, labur-labur:

- egunean gutxienez 30 minutuz jarduera fisiko bat egitea
- astean 5 egunetan, edo gehiagotan.

Jarduera fisiko bat egiten dugun momentu orok balio du, edozein momentu balia dezakegu jarduera fisiko bat egiteko, laburra bada ere (10 minutuz ibiltzea kanpoan, 5 minutuz gimnastika...). Astean zehar, minutu horiek metatzen dira.



Bainatzeko uren kalitatearen ezagutza hobetzea – Eskualdeko Osasun Agentziaren eta Elkargoaren eskutik

4 galdera Elkargoko Uraren, Itsas bazterren eta Ingurune Naturalen zuzendaritzako Caroline Sarraderi, Eskualdeko Osasun Agentziarekin eta Departamenduko delegaritzarekin eramaten duten Tokiko Osasun Kontratuari buruz.

Zein ekintza eman dituzue plantan gaiari buruz informatzeko eta sentsibilizatzeko?

Publiko zabalarai bainatzeko uren kalitateari buruzko urteko bilanak hedatzen dizkiogu, *Ostreopsis algari* buruz informazio mintegiak antolatzen ditugu profesionalentzat (ostalariak, kanpinetako langileak, uretako sokorri zerbitzuak...) eta osasun-langileentzat (medikuak, farmazialariak), departamenduko osasun agentziarekin batera, udako sasoia hasi aitzin 30 bat pertsona inguru sentsibilizatzeko.

Euskal itsasbazterreko Interes Zientifikoko Taldearen 10. Urteurreneko mintegian ehundaka pertsona, kolektibitateak, departamenduko osasun agentzia, zientzialariak, ingurumenaren defentsarako elkarteak eta erabiltzaileak bildu ziren. Egindako lanen emaitzak aurkeztu ondotik, mahai-inguruetan tresna horren interesa azpimarratu zen, trukaketen errazteko. Ondoko urteetarako lan-pistak identifikatu ziren: zientzia sozialen lanketa edo komunikazio ardatzen garapena, ezagutzak herritarrei hobeki ezagutarazteko.

2021ean abiatutako Euskal itsasbazterreko Interes Zientifikoko Taldeak animaturiko mugaz gaindiko lan-talde batek *Ostreopsis* algaren gaian aditu zientifikoak eta tokiko agintariak biltzen ditu, eta *Ostreobila* programa sortu du. Ikerketa programa hori aipatzen ahal diguzu?

Zehazki, ikerketa 3 urtez iraganen da 9 guneren azterketekin, analisisen segimendutik protokolo komun bat sortzeko. Helburuak ondokoak dira:

- *Ostreopsis* algaren kontzentrazioa aztertzea euskal kostaldean.

- Jatorri tropikaleko espezie hauen garapena ahalbidetzen duten ingurumen baldintzak deskribatzea.
- Algek gizakiengan eta bioaniztasunean duten eragina eta toxikotasun maila aztertzea.
- Agintarientzat kudeaketa tresna komunak sortzea.

Ipar Euskal Herriko lau toki hunkituak dira (Hendaiako bikien hondartza, Donibane Lohizuneko Erromardi, Bidarteko Parlementia, Miarritzeko Portu Zaharra) eta Hego Euskal Herriko bost (Hondarribia, Ondarreta, Donostia, Zarautz, Itzurun, Mutriku).

Ikerketak 2,2 milioi euroko aurrekontua du eta horietarik 1,4 milioi Europatik finantzatzeko dira, mugaz gaindiko POCTEFA programaren baitan (%65).

Nola informatu *Ostreopsis* algaren inguruan?

Ostreopsis alga begi hutsez ikusezina da eta teorikoki ur bero eta lasaietan hedatzen da, itsas bazter arroksuetan. 2021eko udan hasi zen euskal kostaldean agertzen. Euskal elkargoaren webguneko orrialde batean atzeman ditzakezue osasunarentzat dituen arriskuak eta ukan beharreko jarrerak (ikus azpiko lotura). Bestalde, Kalilo aplikazioari esker, bainatzeko baldintzei buruzko informazioa ukan daiteke egunero, denbora errealean. Gainera, aurten *Ostreopsis* algaren presentziari buruzko alertak emanen ditu.

kalilo
les plages du Pays Basque

En un clic



Informazio gehiago:

- ▶ [Bainatzeko uren kalitatea \(pdf-an\)](#)
- ▶ [Bainatzeko uren bilana, 2023ko sasoia \(pdf-an\)](#)
- ▶ [Ostreopsis algaren segimendua \(webgunea\)](#)



Mugi zure azieta. *Prekarietatea bizi duten pertsonen egoera.*

Testuingurua

Elkargoak Tokiko Osasun-Kontratuaren baitan obratzen duen ekintza honek hainbat helburu eta publiko-xede identifikatzen ditu.

Helburua – Pertsona prekarioekin lan egiten duten eragileen arteko espazioak sortzea, elkarren arteko lankidetzaren antolatzea eta praktika onak trukatzeko.

► Ipar Euskal Herriko Prekarietateen Behatokia

Ipar Euskal Herriko Prekarietateen Behatokia Gizarte Ekintzarako Herriarteko Zentroko administratzaileek kudeatzen dute (hautetsiek eta gizarte zibileko kideek), AUDAP-ekin elkarlanean. Behatokiaren helburua prekarietate egoerak hobeki ezagutzea da, hobeki tratatzeko, hobeki gainditzeko eta eztabaida publikoa zehaztasunez egiteko.

Gaiari buruzko datu argiak bilduz, behatokiak Ipar Euskal Herriko egoera luze eta zabal islatu nahi du, jakinez familien % 11,9 pobrezia tasaren azpitik bizi direla, hau da, 17 400 familia inguru.


Aldi berean, arazo horrek hunkitzen dituen pertsonen eta egoera horretara eraman dituzten arrazoiei buruzko aurreiritziak deseraikitze lan egiten du. Etxebizitzari buruz egindako lehen argitalpenaren ondotik, bigarrena, elikadura laguntzen Ipar Euskal Herriko egoerari buruzkoa izan da.

Zenbaki garrantzitsu batzu:

- Ipar Euskal Herriko biztanleen **%10** elikadura prekarietate egoeran da.
- **18 000 pertsona laguntzen dira**, 2 300 000 apairuren banaketarekin.
- **% 33 elikagai** gehiago banatu dira 2019tik 2022ra (tonatan).
- **34 elkarte** partaidea.



► Deskargatzeko: [FR](#) [EUS](#) [GAS](#)



- 2023an ikerketa bat egin zen Ipar Euskal Herri osoan janari saltegi sozialak irekitzeko xedearekin. Ondorioetan agertu zen 6 saltegi berri ireki behar zirela Amikuzeko, Hazparneko, Errobiko, Errobi-Aturriko, Bidaxuneko eta Iholdi-Oztibarreko lurralde-eremuetan. Proiektu bakoitza lurralde-ezaugarri berezietara egokitu behar da gidaritzari eta partaidetzei dagokienez. Saltegi horietarik bi (Errobi eta Errobi-Aturri) Gizarte Ekintzarako Herriarteko Zentroaren perimetrotik kanpo dira, beraz, herriko etxe baten esku izanen da gidaritza, dagokion lurralde-eremuaren ordezkari gisa eta ANDES-en laguntzarekin. Beste hiru proiektuen kasuan (Bardoze, Donapaleu eta Hazparne) Gizarte Ekintzarako Herriarteko Zentroaren esku izanen da gidaritza eta jadanik existitzen diren ekipamenduekiko mutualizazioan lan egiten dute (Donapaleuren kasuan, Donibane Garazirekin adibidez) eta elkarteekin elkarlana izanen da (Donapaleuren kasuan, Gurutze Gorriarekin). Egutegi aldetik, lehen proiektua Bardozekoa izanen da seguruenik, saltegia hartuko duen lokala jadanik identifikatua baita (Zerbitzuen Etxea, janari banaketaren ondoan). Azkenik, azpimarratu nahi genuke lan bat abiatu dela saltegi sozialen hornitzeari buruz Bordeleko Agronomia Zientzietako ikasleekin batera. Ondorioak 2024ko udarako espero dira.

Lurralde antolaketa proiektuak osasunaren ikuspegitik landuz

Testuingurua

Iholdiko Herriko Etxeak Iholdiko lakuaren inguruak berritu nahi ditu, alde batetik, bizi kalitatearen, osasunaren eta ongizatearen aldeko dinamikak sortzeko, eta bestetik, lurraldearen erakargarritasunerako jarduerak garatzeko, adibidez, turismoa.

2023 bukaeran, desmartxa boluntario eta parte-hartzaile bat abiatu zen: Osasunean diren Eraginen Ebaluaketa (OEE).

OEEan hautetsiak, Eskualdeko Osasun Agentzia eta herritarrak (biztanleak, erabiltzaileen ordezkariak, profesionalak, kolektibitateetako teknikariak) biltzen dira proiektu baten inguruan, osasun gaiei buruzko elkarriketa bat bultzatzeko.

Ekintza horretan, eginen dena xeheki aztertzen da, horrek ekarriko dituen ondorioak, nor izanen den hunkitua (denak edo jendarteko kategoria batzuk bakarrik), nola aldatuko dituen jendearen bizi baldintzak eta osasun egoerak.

Politiken zeharkako ikuspegi bat garatzen du eta praktiken bateratzea bilatzen du. Gisa horretan, eragileen kontzientzia hartzea bultzatzen du beren ekintzek edo hautuek herritarren osasunean dituzten ondorioen inguruan. Ardura kolektiboki hartzen laguntzen du.



© Ximun LARRE



Ikus Iholdiko OEEa aurkezten duen [bideoa](#).

«Urrats honi esker, maila ezberdinetako beharrak definitzen ahal dira tokiko herritarrekin eta osasun arloko profesionalekin elkarlanean, hala nola, Irisarriko mediku etxearekin. Ingurumenaren aldeko Iniziatibaren Zentro Iraunkorrak bere esperientzia ekarri du lakuko bioaniztasuna zaintzeko eta, ondorioz, proiektu eko-arduratsu bat sortzeko.

Beren kontseiluei esker, elementu zifratuak ditugu eta finantzamenduen xerka joan gaitezke, proiektu handia baita gure bezalako herri txiki batendako.»

Beñat CACHENAUT, Iholdiko auzapeza

Aktibitate fisikoari, kohesio sozialari, mugikortasunari, artarako sarbideari buruzko helburuei erantzutea ahalbidetuko duten aitzinamendu zehatzak identifikatu dira:

- Kirol ekipamendu kolektiboak sortzea, praktika anitzetarako balia daitezkenak.
- Oinezkoen zirkuitu bat sortzea, Iholdiko herriko etxetik eta lakutik pasatzen dena.
- Orientazio ibilbide bat sortzea lakuaren inguruetan.
- Kalitatezko karrikako altzariak ezartzea.
- Itzalguneak segurtatzea kirol ekipamenduen eta jostalekuaren inguruetan.
- Mugikortasun urriko pertsonentzat sarbidea egokitzea eta lakuaren itzulia egiteko posibilitatea lantzea.
- Eskolako auzoa auzo lasai bilakaraztea.
- Osasunaren hirugarren tokiak inspirazio-iturri hartzea eta espazioak funtzio anitzetarako egokitzea.



Hurrengo urratsa: Eraikuntza programatzen laguntzeko obralari bat hautatu, lakuaren inguruko espazioen antolaketa lantzeko.

Tokiko osasun kontratuko ekintzendako sustengu-funtsa

Testuingurua

Eskualdeko Osasun Agentziak – Departamendu mailako ordezkariak eta Euskal Hirigune Elkargoak erabaki dute herritarren osasunaren alde engaiatu nahi duten egiturei ematen dieten sustengua emendatzea. Aurten, 60 000 euroko funtsa bideratuko da Tokiko Osasun-Kontratuaren baitako proiektuetara.

2024 – 2025 sustengu-funtsa

Hemen zerrendatuak dira 2024-2025 laguntza errezibituko duten proiektuek bete behar dituzten lehentasunezko helburu estrategikoak (gutxienez horietako baten ingurukoak izan beharko baitira).

1. Ardatza: Osasunarentzat onuragarriak jarrerak sustatu
 - ▶ HELBURUA – Osasunaren inguruko prebentzio eta heziketa ekintzak antolatu gazteentzat (hautzarotik).
2. Ardatza: Artarako sarbidea indartu lurralde osoan
 - ▶ HELBURUA – Pertsona zaurgarriek artarako duten sarbidea hobetu.
3. Ardatza: Osasunarentzat onuragarria den ingurumena eta bizi-eremua sustatu
 - ▶ HELBURUA – Profesionalak eta publiko zabala ingurumenak osasun gaitan duen garrantziaz sentsibilizatu.
4. Ardatza: Elkarbizitza sustatu eta hurbileko loturak azkartu
 - ▶ HELBURUA – Profesionalak ez diren zaintzaileen laguntza hobetu.
 - ▶ HELBURUA - Sufrimendu psikikoa duten pertsonen ongizatearen eta gizarteratzearen aldeko tokiko elkarten artean lankidetzak garatu.



Azken epea: 2024ko uztailaren 5a

Araudia
Inprimakia



Christelle Seguin-Fuenmayor
Euskal Hirigune Elkargoko TOKaren koordinatzailea

07 63 86 65 46
cls@communaute-paysbasque.fr



Bayonne-Pau

